

Babes soziala EAEn

DSBEren erreforma-proposamenaren azterketa

2017ko uztaila



www.lab.eus



AURKIBIDEA

Introducción	5
Gogoratu beharreko aurrekariak.....	7
Beste murrizketa batzuen ondotik datorren murrizketa proposamena.....	8
DSBE-EPO-GLL sistemaren inpaktua pobrezia-egoeretan eta DSBE jasotzen duten kolektiboen datuak.....	11
Proposatutako neurri garrantzitsuenak.....	11
Ondorioak.....	15

Sarrera

Eusko Jaurlaritzak DSBEri¹ buruz Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta Hobetzeko Oinarrien Dokumentua izenarekin Legebiltzarrari berriki aurkeztu dion proposamena aztertzea da txosten honen xedea. Dokumentu hori eztabaidatu eta ekarpenak egin behar zaizkio orain.

DSBE EAEn kudeatzeko orain arteko modua arautu duen 2008ko legea aldatzea da orain aurkeztutako proposamenaren xedea. Proposamenak ez du artikulurik jasotzen eta, beraz, ikusteko dago aditzera emandako asmoak nola gauzatzen diren zehazki.

Egungo erregulazioa abiapuntutzat hartuta, erregulazio hori eskasa dela esan dezakegu dagoeneko, DSBEren zenbatekoa pobrezia-atalase² delakoaren azpitik kokatzen baitu.

DSBEren egungo erregulazioak finkatutako kopurua ez da Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) %100 ere iristen.

Aurkeztutako proposamenak DSBEri buruzko oso ikuspegi eta diagnostiko baikorra dakar, Espainiako Estatuarekin alderatuta (jakina), baina EAE Europako beste estatu batzuekin alderatu eta lehen postuetan jartzera ere ausartzen da, bai eta *"ahalegin ekonomikoa EBko batez bestekoaren gainetik"* dagoela esatera ere. Alderaketa hori nola eginda dagoen ikusita, auzitan jartzeko modukoa da: EBko estatuarekin alderatzen du EAE, alde batera utzita haiek esparru nagusitik (Gizarte Segurantza, esate baterako) garatu ditzaketela gizarte-babeseko politikak eta ez, EAEn gertatzen den moduan, soilik esparru subsidiariotik.

Dokumentuak berak aitortzen duenez, *"ahalegin ekonomiko hori estatu-mailako babes-sistemen ahuleziarekin dago erlaxionatuta nagusiki"*, *"sistema horietan langabezia-prestazioak ez baitira behar adinakoak eta pentsio-politikak eta familiei laguntzeko politikak ere —Gizarte Segurantzaren baitakoak dira politika horiei dagozkien eskumenak— ez dira behar adinakoak"*.

Era berean, dokumentuak onartzen du, *"euskal sistemaren baitan, gastuaren zatirik handiena kotizazio gabeko edo alarguntasuneko pentsioei zuzentzen zaiela, estatu-mailako ereduak behar beste estaltzen ez dituen pentsio horiek erkidegoko tresnen bidez konpentsatzen baitira neurri handi batean"*.

Gizarte- eta lan-baldintzak ere aintzakotzat hartu beharko lirateke alderaketa horretan, babestu beharreko pertsona guzti-guztiak kontuan hartzeko. EAEko DSBEren kasuan, hauek lirateke pertsona horiek:

- diru-sarrerarik gabeko pertsonak
- laneko diru-sarrera urriegiak jasotzen dituzten pertsonak
- pentsio apalak jasotzen dituzten pentsiodunak

EAEn %65,8 da enplegu-tasa (16-64 urtekoen artean enplegua daukatenen ehunekoa). Danimarkan, berriz, %74,9; Alemanian, %74,7; Norvegian, %74,3; Holandan, %74,8.

Europa 2020 - Europako Hazkunde Estrategiaren barruan,%75eko enplegu-tasara iristeko helburua finkatu du EBk (iturria: Lan Harremanen Kontseiluaren txostena Euskadiko gizarte- eta lan-egoerari buruz, 2017ko 1. hiru-hilekoa).

Aipatzeko moduko datu bat da ea zenbat gastatzen den gizarte-babesean BPGren aldean. Eustatek 2014ri buruz argitaratutako datuak hartuta (EB osoari buruzko informazioa egon zen azken urtea), EAEk gizarte-babesera bideratutako ahalegin ekonomikoa EBko beste alderdi batzuetan zuzendutakoarekin alderatu dezakegu. Datu horien arabera, gizarte-babesa BPGren %28,7koa izan zen EBn, EAEn baino 3,8 puntu handiagoa.

¹ DSBE: Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta.

² Errenten ediko balioaren %60a iristen ez dena da pobrezia-atalasea.

Gobernuak oinarri hauek aipatzen ditu bere proposamenaren premia justifikatzeko:

- Legebiltzarrak Jaurlaritzari zuzendutako agindua, "*adostasun zabaleko itun sozial bat bultzatzeko, horrela finantzazioa sendotu eta gizarte-babeserako euskal sistemaren iraunkortasuna bermatzeko*" eskatuz.
- Horrez gain, zera erasten du: Europar Batasunak gizarteratze-errenta bat garatzeko gomendatu diela EBko estatuei, krisi ekonomikoaren ondorioei aurre egiteko. EBk 2017ko apirilaren 26an Europako Gizarte Eskubideen Zutabeari buruz berriki emandako Gomendioa ere aipatzen du. Horren arabera, "*behar beste baliabiderik ez duen pertsona orok eskubidea du **bizitzako etapa guztietan bizimodu duina bermatzeko** adinako gutxieneko errenta-prestazio nahikoak jasotzeko bai eta trebakuntza-zerbitzu eta ondasunak eskuratzekoa ere*". Proposamengileentzat erraza da esatea beren proposamena EBren gomendio guztiak betetzen dituela, bizimodu duina izateko beharrezko baldintzak zehazteko garaian sailburuak berak jendaurrean aipatutako definizioa hartzen bada oinarriztat: 600 €-ko zenbatekoa nahikoa iruditu zaio.

Euskal gizarte-babeserako sistema (DSBEz gain, GLL³ eta EPO⁴ ere biltzen dituena) EAE beste esparru batzuetatik bereizten duen euskal paradigma handitzat aurkezten da, "Euskadin pobrezia eta berdintasunik eza saihesteko eta haien hazkunde mugatzeko gai ere izan dela" aipatzearekin batera. Hori esatea bateraezina da aurkeztutako proposamenarekin, sindikatuak bere hasierako balorazioan dagoeneko adierazi duenez, hartzaileen kolektiboa murriztea eta jasotako zenbatekoak gutxiagotzea ekarriko baitu proposamenak.

³ GLL: Gizarte Larrialdietarako Laguntzak

⁴ EPO: Etxebizitza-gastuetarako Prestazio Osagarria

Gogoratu beharreko aurrekariak

Indarrean daramatzan ia hiru hamarkadatan, pobrezia aurre egiteko ereduak ez du aldaketa sakonik izan, EAEn hainbat lege onartu badira ere: 2/1990 Legea, maiatzaren 3koa, Gizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarrerei buruzkoa; 12/1998 Legea, Gizarte Bazterkeriaren Aurkakoa; 10/2000 Legea, abenduaren 27koa, Gizarte Eskubideen Agiriarena, eta gaur egun indarrean dagoena, 18/2008 Legea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.

1996-2000 urteen bitartean garai hartan soldata soziala zeritzonaren aldarrikapenak garrantzi handia izan zuen euskal gehiengo sindikalaren eta euskal gizarte-mugimenduaren agendan. Batzuk eta besteak elkar hartuta, "Gizarte Eskubideen Gutun baterako Lege Proposamena" izeneko legegintzako herri-ekimena (LHE) jarri zuten martxan. 82.000 sinadura jaso zituzten (1997) eta mobilizazio handiak egin ziren. LHE hori oso esperientzia garrantzitsua izan zen sindikatuek eta gizarte-mugimenduek gizarte-bazterkeriaren eta pobrezia-aren aurkako borrokan egindako lanari dagokionez, eta gogoan izatea komeni da

Aipatutakoaz gain, enplegua banatzeko eskatzen zuen ekimen hark (lanaldia 35 ordua murriztea, 32ra Administrazioan; kontratu prekarioak egonkorrekin ordezkatea; erretiroa 60 urterekin eta aparteko orduak ezabatzea) eta soldata sozialerako eredu bat aldarrikatzen zuen, baldintza hautan oinarrituta:

- banan-banakoa
- 18 urtetik gorakoentzat
- pentsiodunak barne
- urtebeteko erroldatzea
- gutxieneko soldataren %100
- mugagabea beharrak (enplegurik ezak) dirauen bitartean
- kontraprestazioa eskatzea onartzen zen.

Ekimen horri jarraiki, greba orokor arrakastatsua egin zen 1999ko maiatzean, 35 orduko lanaldia eta soldata soziala eskatzeko.

Proposamen eta mobilizazio hari esker, pobrezia-aren aurkako borroka agenda politikoan sartu zen ikuspegi integral batetik, soldata soziala estigmatizazio asistentzialistaren esparrutik atera eta, enplegurik ezean, "eskubide osoko herritar gisa bizi" ahal izateko oinarritzko errenta gisa aldarrikatzeko.

Legebiltzarraren 10/2000 Legearen bidez (egun indarrean dagoenaren aurrekaria) ekimen hura urardotuta gelditu bazen ere, gaur egun euskal DSBEz esaten diren "gauza onak" eta beste erkidego batzuen aldean txalotzen diren berezitasunak euskal sindikatuak eta gizarte-mugimendua aktibatzeke gai izan zen gizarte-mobilizazio haren fruituak izan dira, egia esan.

.

Beste murrizketa batzuen ondotik datorren murrizketa proposamena

Orain proposatzen diren neurriei heldu aurretik, kontuan izan behar dugu 2008ko Legeak murrizketak jasan dituela dagoeneko, noiz eta 2012an, PSE-PPren gobernualdian, krisiaren sasoirik gogorrean, eta, azkenekoz, EAJren aldetik (LGSren igoera ez aplikatzea erabaki zuenean):

- 2012ko aldaketaren ondorioz, kudeaketa Lanbideren esku gelditu zen (oinarrizko gizarte-zerbitzuen kudeaketa udal eta aldundietatik atera eta gero), onuradunen gaineko kontrola eta presioa areagotu egin zituzten haien enplegarritasuna areagotzeko helburuz eta erroldatzea urtebetetik hiru urtera igo zuten.
- 2012ko EAEko aurrekontu-legearen bidez %7 murriztu zen DSBE eta murrizketa hori ez dute oraindik atzera bota.
- 2017rako ez da Madrilek finkatutako %8ko igoera aplikatu LGSan, indarrean dagoen legeak erreferentzia hori finkatzen badu ere, eta %1,5era (KPI) mugatu dute igoera. Estatu-mailako erregulazioa aprobetxatu dute horretarako: Espainiako gobernuak 2017rako hazkunde handia onartu eta gero (azken urteotako izozteen eta igoera txiki-txikien aldean), salbuespen ugari finkatu ditu hazkunde hori ez aplikatzeko eta orain artekoa ez bezalako egoera berezia sortu da.

Horrela bada, egungo proposamenaren aurretik **%13,5eko murrizketa aplikatua zuten 2008ko Legearen hasierako aurreikuspenen gainean.**

18/2008 Legearen hasierako aurreikuspenen arabera, 2017ko DSBEk izan beharko lukeen zenbatekoa eta murrizketak aplikatuz ordaintzen denaren arteko alderaketa jasotzen duen taula

2017ko DSBE 2008ko Legearen arabera	OROKORRA LGSrekiko erreferentzia	PENTSIODUNA LGSarekiko erreferentzia
Pertsona 1	%88	%100
2 pertsona	%113	%125
3 pertsona edo gehiago	%125	%135

RGI 2017ko DSBE	OROKORRA		PENTSIODUNAK		PENTSIODUNAK	
	18/2008 arabera	legearen Ordaintzen zenbatekoa	den	18/2008 arabera	legearen Ordaintzen zenbatekoa	den
Pertsona 1	726,57	634,97		825,65	721,55	
2 pertsona	932,98	815,35		1.032,06	901,94	
3 pertsona edo gehiago	1.032,06	901,94		1.114,63	974,09	

Kolektibo sozialek salatu dutenez, legeak arautzen duenetik haratago joaz aplikatutako irizpideen bidez ere murrizketak de facto aplikatu dira. Lanbidek barne-zirkularretan hartutako erabakien bidez kudeatu du DSBE, onuradunek beraiek ere ezagutzen ez zituzten irizpide zorrotz eta aldakorrek aplikatuz.

Kexa ugari jaso dituela-eta Arartekoak kudeaketa horren berri eman du berriki, eta "irizpide murriztailerik" ez aplikatzeko eskatu dio Sailari. Horrez gain, Lanbidek ez du ez bertako langileei ez onuradunei ganorazko zerbitzu publiko bat bermatzeko adina baliabide tekniko edo giza baliabiderik.

Orain arteko erreforma guztiek ezaugarri berbera izan dute: diru-sarrera bermatuak izateko eskubidea murriztera jo dute instituzioen diskurtso eta praktika guzti-guztiek. Prestazio hori beren jomugan jarri dute politika neoliberalak eta, gizarte-gastua murrizteaz gain, baldintza guztiz kaskarretako lanpostuak onartzeko presioa eta xantaia areagotu nahi dituzte.

Horrenbestez, gizartearen eta lan-munduaren prekarizazio-prozesuak eskubide ekonomiko eta sozialen urraketaren ondorioak baino ez dira. Eta eskubide-urraketa hori euskal langile-klasea pobretzeko eta zigortzeko hiru bidetatik ari da



gauzatzen:

- Lan-erreforma euskal enpresetan aplikatuz: lan-merkatu gero eta desorekatuagoa, langileak pobretzen dituen eta behar besteko diru-sarrerarik eskaintzen ez duena.
- Emakumeen diskriminazioa, lanpostu bat izateko zailtasun handiagoekin, lanbideen arabera banandutako lan-merkatu batean, bizi-proiektu independentea garatzen utziko dien behar adinako autonomia ekonomikoa izatea galarazten zaielarik.
- Babes-sistemaren eraispena eta horren ondorio larriak: gero eta jende gutxiago babesten duen sistema, gero eta prestazio txikiagoekin.

Lehenbiziko bi bideei dagokienez, bideon ondorioak guttiz larriak izan arren, Eusko Jurlaritzak ez du ezer esaten ez egiten. Hirugarrenari dagokionez, berriz, aldaketak eraispen hori sakontzera datoz. Proposatutako aldaketek prestazioak eskuratzeko modua gogortzen dute kasu gehienetan, zenbatekoak murrizten dituzte eta oinarritzko eskubide hau ez dute bere funtziora bideratzen, euskal gizartearen kohesio sozialean aurrera egitera eta kohesio hori sendotzera, alegia.

DSBE-EPO-GLL sistemaren inpaktua pobrezia-egoeretan eta dsbe jasotzen duten kolektiboen datuak

Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkestaren (PGEI) arabera, DSBE-EPO-GLL sistemak 134.563 pertsonari eman zizkien prestazioak 2016an, EAEko biztanleriaren %6,3ri, alegia.

2008an, berriz, 83.023 pertsonari (biztanleria osoaren %3,9ri).

2008-2016 bitartean %62 handitu da zerbitzua eman zaien kopurua.

2016an sistemaren laguntzak eskuratu zituztenak benetako pobrezia-arriskuan zeuden 194.060 pertsonen %69,3 izan ziren. Horrek esan nahi du benetako pobrezia-arriskuan duen 59.497 pertsonak (%30,7k) ez dutela sistemaren arretarik jasotzen.

2008an 130.564 ziren benetako pobrezia-arriskuan zeuden pertsonak. Horien arteko %36,4ek ez zuten sistemaren babesik jaso, hau da, benetako pobrezia-arriskuan dauden 47.541 pertsonak ez zuten prestaziorik eskuratu.

2008az geroztik %25 handitu da benetako pobrezia-arriskuan egonik prestaziorik jasotzen ez duten pertsonen kopurua.

2016an 63.069 ziren laguntzak eskuratu arren pobrezia-egoeratik ateratzea lortzen ez zuten pertsonak. 2008an, 42.165 pertsona zeuden kolektibo horren barruan. 2008-2016 bitartean %49,6ko hazkundea egon da, beraz.

Pobreziaren bilakaera EAEn 2008 eta 2016 artean

	2008	2016	Hazkundea	%
Benetako pobrezia-egoeran dagoen biztanleria	130.564	194.060	63.496	48,6%
Prestazioak jasotzen dituztenak	83.23	134.563	51.540	62,1%
Ez dira pobreziatik ateratzen (laguntzak jaso arren)	42,165	63.069	20.904	49,6%
No atendidas	47,541	59.497	11.956	25,1%
Población atendida / Población en riesgo	63,6%	69,3%		

Fuente: EPDS – 2016

DSBEren jasotzaileak 2017ko maiatzean (LANBIDE)

Guztira 62.924 pertsonak jasotzen dute DSBE, horien artean 35.701 emakumeak (%56,7).

Beren diru-sarrerak DSBEekin osatu zituzten pentsiodunak 15.637 izan ziren maiatzean, horietatik 10.541 emakumeak (%67,4).

Laneko diru-sarrerak osatzeko laguntza 12.512 pertsonak jaso zuten, horietatik 8.271 emakumeak (%66,1).

DSBE kobratu zuten atzerritarrak (nazionalizatu gabeak) 17.033 izan ziren (22.805 Espainiako Estatutik kanpo jaioak).

Hala datu orokorretan nola kolektiboetako buruzko datuetan ikusten denez, emakumeak gehiengo dira DSBE jasotzen dutenen artean.

Proposatutako neurri garrantzitsuenak

Orain aurkezten duten proposamenaren aurretik hartzaile-kolektiboen aurkako kriminalizazio-kanpaina bat antolatu dute. Horretarako, hedabide handien laguntza izan dute eta xenofobia-dosi handiak isuri dituzte.

Proposatutako aldaketei heldu aurretik, ohar txo batzuk aurkeztutako dokumentuan jasotako diagnostikoari buruz:

- **Erreformak Lanbideren kudeaketa kaskarra ezkututzen du.** Txosteneko diagnostikoan, DSBE kudeatzeko zailtasunei buruzko puntu bat dago. Atal horretan sendotzen dira geroago proposatzen diren aldaketak. Guztiz onartezina da prestazioak eskuratzeko aukerak gogortzeko eta prestazioaren zenbatekoa gutxitzeko proposatutako neurriak kudeaketa-beharrekin lotzea eta ez hartzaileen eta egoera zinez zailean (Lanbideren balorazioa) bizi direnen benetako beharrekin.
- **Benetako pobrezia-egoeran dauden biztanleen %30,7k ez dute DSBE eskuratzeko.** Datu guztiz kezagarri horri ez zaio inolako garrantzirik ematen eta inork ez du horri aurre egiteko konponbiderik proposatzen. Era askotako arrazoiak ematen dira horretarako: batetik, prestazioa ez dutela jasotzen beharrezko betebeharrak betetzen ez dituztelako. Bestetik, eskatzen ez dutelako ez dutela jasotzen. Lehenari dagokionez, DSBE eskuratzeko finkatutako betebeharrak zorrotzek babesik gabe uzten dituzte pertsona asko eta asko. Datu hori zuzentzeko aukera alferrik galtzen utzi dute berriro ere eta prestazioak jasotzeko baldintzak murriztu eta zabaldu beharrean, gogortu egin dituzte. Prestazioak ez eskatzeko arrazoiei dagokienez, izan daiteke jendeak ez duela haien berri (ez dugu gogoan EJK eskubide horren berri emanez egindako kanpainarik) edo lotsa ematen dielako (Beatriz Artolazabal sailburuak egindako kriminalizazio-kanpainen ondorioz, ulergarria da jendeak prestazioak eskatu nahi ez izatea).
- **Aktibo izateko egoeran egonik prestazioak jasotzen dituztenen arteko laurden batek baino ez du lortu lan-merkatuan sartzea, modu prekarioan bada ere.** Izenburua hain larria izanik ere, dokumentu honek ez du egoera hori konpontzeko proposamen bakar bat ere jasotzen. Euskal enpresetan lan-erreformak aplikatuz geroztik, berdintasunik eza eta prekaritatea eragin ditu lan-merkatuak, gizarte-arrakala areagotu eta emakumezko langile pobreen kolektiboa handitzearekin batera. Laguntzak jasotzeko baldintzak zorrotzen ari dira, jendea kalitate txar-txarreko lanak onartzera behartzeko. Lanbideren funtzioa dena, porrot hutsa.
- **Lanbideak kudeatutako prestazioetan, iruzurrak eta erabilera desegokiak %1,3 izan dira.** Datua hori izan arren, eskaeraren zilegatasuna auzitan jartzen duten argudioak zabaltzen dituzte. Laguntzak eskatzen dituztenek iruzur egiten ote duten susmoa hedatu dute. Pertsonen bizitzan mutur-sartze onartezina gertatzen ari da: haien duintasuna urratzen da eta beren gastuei buruzko erabakiak inposatzen zaizkie, laguntzak jaso nahi izanez gero.

DSBEren egungo erregulazioa aldatzeko PROPOSATUTAKO NEURRI garrantzitsuenak:

- **DSBE bakarra etxebizitza berean erroldatutako pertsona guztientzat, orain arte bezala etxebizitza berean bi bizikidetzaren unitate frogatuz gero bi DSBE arte onartu beharrean.** Legeak berak atarikoan onartzen duenez "Bizikidetzaren unitatea ereduaren funtsezko osagarrietako bat da, noski, haren definizioak prestazio bakoitzaren estaldura-maila baldintzatzen duen aldetik". Gogoan izan behar dugu onartutako bizikidetzaren unitatea dela DSBEren zenbatekoa finkatzeko kontuan hartu beharreko diru-sarreraren maila finkatzen duena.

Nahiz eta orain arte gehienez bi DSBE onartu izan diren, etxebizitza berean bi bizikidetzaren unitate onartu izan direnetan, hori salbuespeneko egoera dela dio legeak, eta beharrezkoa dela premia larriko egoera frogatzea (Dekretuko 5. 1. c) art.). Salbuespen hori bertan behera uztea izan da erabakia.

Egungo lege-erregulazioak (Legeko 9.1.d) art. eta Dekretuko 5.4. art.) zera dio: "Eusko Jaurlaritzak, bere ekimenez edo beste Administrazio Publiko batzuek proposatuta, bizikidetzaren unitate kasu edo suposizio berriak definitu ahal izango ditu gizarte-bilakaeraren arabera, eta bereziki, familia-egiturako ereduaren bilakaeraren arabera".

Proposatutako aldaketak ez ditu familia-egiturako eredu berriak aintzat hartzen eta, alderantziz, atzerapauso bat ematen du, seme-alabekin osatutako bizikidetza egonkorak hartzen baititu erreferentzia nagusizat. Egungo erregulazioan nabarmendutako alderdietan ez baizik eta bi gai hauetan oinarritu du Gobernuak bere aldaketa:

- ezkon-lotura edo odol- nahiz kidetza-lotura duten pertsonen osatutako bizikidetza-unitateen "konparaziozko bidegabekeria", halakoak izanik DSBE bakarra esleitzen baitzaiei,
- "modu artifizialean" (bikote-harremana duten pertsonekin) eta beren egoera frogatu gabe eratutako bizikidetza-unitateen aldean.

Horrela bada, proposamenean zera esaten da: "DSBE eskuratzeko eskaeretan etxebizitza berean bizi diren pertsona guztiak aipatuko dira, familia-lotura izan edo ez, eta etxebizitza bakoitzeko gehienez ere prestazio bat onartuko da modu orokorrean. Dagokion eskubide eta zenbatekoa zehazteko, etxebizitza horretan bizi diren pertsona guztien diru-sarrerak hartuko dira erreferentziatzat".

Neurri horrek prestaziorik gabe utziko du jende asko. Ez dakigu Jaurlearitzak azterketarik egin ote duen laguntza hori gabe geldituko diren pertsonen inguruan, baina baztertutakoen kopurua handitu egingo da eta, horrekin batera, pobrezia hazi eta berdintasunik eza areagotuko da.

- **DSBEren zenbatekoa finkatzeko modu berria, oinarrizko prestazioaren eta kopuru osagarrien bidez.** Kalkulua egiteko moduaren aldaketak aurreko neurriarekin du zerikusia. Aurrerantzean oinarri komun bat finkatuko da bizikidetza-unitate guztientzat, haien egitura eta tamaina edozein dela ere, eta osagarri batzuk gehituko dira, etxebizitzan bizi diren heldu eta adin txikikoentzat. Edozein motatako familientzako gehienezko prestazioa hileko 1.200 €-koa izango da, eta 600 €-koa bigarren mailako unitateetan (etxebizitza berean DSBEren hartzaile gisa onartuta dagoenaz gain modu puntualean onartu ahal izango diren unitateetan).

Lau pertsona helduz osatutako bizikidetza-unitate baten adibidea:

DSBEren ZENBATEKOA 2017	OROKORRA 18/2008 arabera	OROKORRA Legareen Ordaintzen den zenbatekoa	OROKORRA Proposamenaren arabera
Pertsona 1	726,57	634,97	650
2 pertsona	932,98	815,35	750
3 pertsona	1.032,06	901,94	850
4 pertsona edo gehiago	1.032,06	901,94	950

Bikote batez eta bi seme-alabez osatutako bizikidetza-unitate baten adibidea:

DSBEren ZENBATEKOA 2017	OROKORRA 18/2008 Legareen arabera	OROKORRA Ordaintzen den zenbatekoa	OROKORRA Proposamenaren arabera
Pertsona 1	726,57	634,97	650
2 pertsona	932,98	815,35	810
3 pertsona	1.032,06	901,94	930
4 pertsona edo gehiago	1.032,06	901,94	1.014

100 €-ko osagarria guraso-bakartasun, ezintasun edo genero-indarkeriagatik. Egungo erregulazioan LGSren 6,4 da osagarria.

- **LGS erreferentziatzat hartzeari uztea.** Erabaki dute gehienezko zenbatekoak ez direla LGSren edo IPREMen arabera finkatuko, eta eguneraketa ez dela adierazle horiei lotuta egongo. Erreferentzia zein izango den ere ez dute zehaztu eta, beraz, izan liteke urtero erabakitzea aurrekontuen bidez.

Ez dago LGSren erreferentzia sakralizatzeko arrazoirik, Madrilen erabakitzen den aldetik eta ezinbestean onurak ekarri ez dituen aldetik: igoyerarik ez (izozteak 2012an eta 2014an), igoera apalak (4 €-koa 2012-2013 bitartean eta 3 €-koa 2014tik 2015era), azkenekoan igoera handi samarra izanik ere (%8) igoera hori ez da bermatuta egon. 2017rako %1,5eko KPI aplikatu da modu interesatuan (indarrean dagoen legea bera urratuz), noiz eta LGSren igoera handia (%8) izan den urte bakarrean.

KPIren aldean DSBEren zenbatekoak eros-ahalmena %11,2 gutxitzea eragin du 2009-2016 bitartean

Urteko batzabetsekoa

CAV	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2009-2016	2011-2016
IPC	91,866	93,420	96,312	98,539	100,09	100,25	99,98	100,00	%8,9	3,8%
RGI	640,64	650,,19	658,50	612,41	616,13	616,13	619,28	625,58	-%2,4	-5,0%
Eros ahalmenaren galera DSBE									-11,2%	-8,8%

- **Hiru urtez errolatuta egoteko baldintza orokorrari eusten zaio, salbuespen bakar batekin.**

4/2011 Legeak (azaroaren 24koa) ezarritako murrizketari eutsi zaio orokorrean. Gutxieneko errolatze-aldia urtebetekoa zen orduan eta hiru urtera handitu zen, etorkinei baldintzak zailtzeko.

Proposamenak bi urtera jaisten du errolatze-aldia, baina muturreko baldintzetarako bakarrik: ardurapeko seme-alabak dituzten familia-unitateak, dokumentazio jakin bat aurkeztera behartuta ez dauden errefuxiatu eta asilo-eskatzailak.

- **Benetako egoitza kontrolatzeko kontrol zorrotzak.** Eskatutako dokumentuen (errotze-txostena, eskolatzegiriak...), etxean daudela egiaztatzeko ausazko kontrolen... bidez hartzaileak gaizkiletzat tratatzen dituzte behar sozialak dauzkaten pertsonatzat beharrean. Era honetako neurriek dauzkaten ondorio guztiz kaltegarrien eraginez gero eta okerragoa da zerbitzu publikoetan (Lanbiden, udaletan, gizarte-zerbitzuetan...) eskaintzen den arreta, kontrol-funtzioei ematen baitzaie lehentasuna lana bilatzeko babes eta orientazioaren ginetik.
- **Aldaketak ondasunen balorazioan.** Prestazioaren minorazio partzialeko sistema bat aplikatzen da, ondasunen katastro-balioari lotuta. Oso diru-sarrera apalak daukatenez objektiboki laguntza behar izanik beren izenean balio oso eskaseko eta saltzeko zailak diren ondasunak dituzten pertsonak prestaziotik kanpo ez uzteko egin da aldaketa hori.
- **Ordainketa eta kobrantza bidegabeak.** Ordainketa bidegabeen onuradunen erantzukizunaren preskripzioa, zenbatekoak jaso eta 24 hilabete igarotakoan, Lanbidek jakinarazpenik edo erreklamaziorik jaso gabe. Dolorik edo iruzurrik egon ez den kasuetan bakarrik.
- **Enplegurako estimulu-sistema hobetzeko eta arrazionalizatzeko aldaketak.** Laneko diru-sarrerak osatzeko errentari dagozkion aldaketak sartzen dira hemen. Bizikidetz-unitateentzat prestazio bidez bermatutako gutxieneko diru-sarreraren (guztira LGSren %125 gehienez) eta bizikidetz-unitate horrek dituen diru-sarreraren arteko aldea bermatzen du DSBE honek.

Proposatutako aldaketak:

- Hiru urteko muga kendu dute, mekanismo egonkorretan oinarritutako egiturazko erantzun bat emateko premiari erantzunez. (Badakite zenbatekoa den laneko pobrezia kronifikazio-maila).

- Gaur egun finkatutako zenbatekoa "zenbaitetan handiegia" dela iruditzen zaie, eta, ondorioz, soldata osagarriaren gehienezko kopurua hileko 400 €-an jarri nahi dute.
- Iruditzen zaie era honetako prestazioen bidez jendea "DSBEren bidez osatutako lanaldi partzialeko enpleguetan betikotzea" bultzatzeko arriskua egon daitekeela eta saihesteko aldaketa batzuk egingo dituzte (ez dituzte zehaztu eta ikusi beharko gauzak zertan gelditzen diren).

Horrenbestez, lanaldi partzial eskaseko kontratuak zigortzera joango da neurri hori, emakumeak gehiengoa diren lanaldiak hain zuzen ere.

Enplegua sustatzeko estimuluaren atal honetan jasotako beste neurri batzuk:

- DSBE jasotzen duten pertsonen eta iraupen luzeko langabeei errelebo-kontratuak egiten dizkieten enpresentzako hobariak handitzea eta halako pertsonen kontratazioa lehenesteko mekanismoak jasotzea Administrazioek kontratatzeke dituzten prozeduretan.
- Prestazioak jasotzen dituzten pertsonen Lanbidek proposatutako lan- nahiz trebakuntza-eskaintzak onartu beharko dituzte.

Gizartea nahiz lan-mundua prekarizatzeko prozesuari ez zaio aurre egiten eta, zoritxarrez, enplegurako politika aktiboak ugazaben neurriaren egiten dira, prekarizazioa sustatuz eta sarituz.

Ondorioak

DSBEren erreformari buruzko eztabaidak EAeko gizarte-babeserako ereduari buruzko eztabaida zabaltzen lagundu beharko liguke. Eztabaida honetan agerian utzi beharko litzateke lan-harremanen eta gizarte-segurantzaren alorrean eskumenik ez izateak (lan-harremanetarako eta gizarte-segurantzarako euskal esparrua) Madrilen erabakitako lan-erreformek eta pentsio-murrizketek eragindako ondorioei DSBEren bidez aurre egin behar izatera garamatzala. Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren igoera, langile pobreen errealitate berria eta pentsio apalak Madrildik hartutako erabakien ondorio zuzenak dira Gaur egun gizartean, ekonomian eta lan-munduan daukagun egoerari erantzuteko benetako aldaketak dakartzaten politikak bultzatzeko, DSBE gizarte-kohesiorako benetako tresna bihurtzeko borondate politikoa behar da, bai eta politika integralak garatu ahal izateko tresnak izateko beharrari heltzeko borondate politikoa ere.

Gizartea nahiz lan-mundua prekarizatzeko prozesuari ez zaio aurre egiten eta, zoritxarrez, enplegurako politika aktiboak ugazaben neurrira egiten dira, prekarizazioa sustatuz eta sarituz.

Nabarmentzekoa da proposamenak ez duela inolako kritikarik egiten ugazaben klaseari buruz, nahiz eta diagnostikoan zera onartu: "egungo testuinguru sozioekonomikoan, DSBE jasotzen duten pertsona gehienek lortzen dituzten lanpostuak prekarioak dira, soldata apal, lanaldi partzial eta aldi baterako kontratazio nahiz kontratu etenekin". Gainera, "halako lanpostuak ugaritzen ari diren testuinguru batean gaude". Prestazioen hartzaileei buruz ari direnean kritikak eta iruzur-susmoak zabaltzen dituzte eta ogasun publikorako zama gisa aurkezten dituzte. Enpresaburuei buruz, berriz, ez dute batere aipamen kritikorik egiten langileak prekarizatzeko eta pobretzeko bultzatzen duten politika dela eta, nahiz eta politika horrek baliabide publikoak inbertitzera behartu.

BPGren aldean EAEn gizarte-babesean gastatzen dena ezin parekatu daiteke EBko batez bestekoarekin.

DSBE-hartzaile gehienak (%56,7) emakumeak direnez gero, emakumeak dira DSBEren murrizketen kaltetu nagusiak, eta horrek ez du aukera-berdintasunean laguntzen. Lanaldi partzialen ugalketa da langile pobreak sortzen gehien laguntzen ari den egoeretako bat, eta hor ere emakumeak nagusi. Indarrean dagoen legeko 3. artikuluan jasotako printzipioak urratzea edo, bestela, atzera egitea ekar lezake horrek. Zera dio artikulua horrek: "Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemak, gainera, euskal politika publikoekin batera, berdintasunik eza ezabatzeko eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean (eta, bereziki, pobrezia emakumeen artean daukan eragin handiagoa saihesteari dagokionez) lagunduko du.

Deigarria gertatzen da aurkeztutako dokumentuak analisi eta estatistika ugari jaso arren ez duela genero-inpaktua aintzat hartzen (nahiz eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/205 Legeko 19. artikulua araber aurrerakoa izan generoaren arabera aldez aurretiko inpaktu-ebaluazio bat egitea).

DSBE jasotzeko aukera izan lezaketzen pertsonen %30 prestaziorik gabe ez gelditzeko neurriak finkatu beharko litzuke proposamenak.

Proposamenak ez du asmo handiko helbururik finkatzen: ez du pobrezia ezabatu nahi, jasagarria egin baizik, harekin bizi nahi du eta pobrezia gogorra da borrokatzen duen bakarra.

Sistemaren iraunkortasunak ezin du baldintzarik txarretan dauden pertsonentzako baliabideak murriztean oinarritu: zerga-erreforma bidezko bat da behar dena, iruzurra zigortzearekin batera.